

Euskal Alfabetatzea Unibersidadeetan

Biltzar bat:

Urteak 1970. Maiatzaren 10'gn eguna. Valladolid, Madrid, eta Salamanca goi-ikasleak euskal alfabetatzearen aldeko iradiazioak biltzen dira Salamancan lehenengo aldiz. Danetara zazpi irakasle. Bi ordu t'erdi iraun du biltzarra.

Helburua:

A.—Oraindaino eta aurtun Unibersidade bakoitzean egin dan euskal alfabetatzeari begirada bat.

B.—Datorren urteko ikastaroa, aurrez, ahal dan ondoan taxutu.

Biltzarreko lehen-esanak:

Sendo, eraketaz eta xehetasunez hartu behar dugu guztiok Euskalerriko goi-ikasleen euskal alfabetatzea. Ez gero jakitun herriaren hizkuntza jakin gabe! Edo ta bestela, hizkuntza arrotzarekin herriaren jatorrizko arima zapalduko dugu, eta goineko mailatik zapaldu ere.

SENDO: Batez ere, irakasle dnak sakon eta adimenaren hariz josi behar du esukera. Gero, metodologi egokiak irakatsi.

ERAKETAZ: Unibersidadeetako euskal alfabetatzean gabilzan irakasle guztiok, bat-bateko, norberakiko, eta eragabeko joakera antzuek utzi eta aldeaz aurretik, elkarrekin bat egini, eraketa neurtu eta jakinetan oinarritu behar dugu urteroko erakustea. Elkartzeko honetan EUSKERA BATERATUA erabiliko dugu eta ahal dugula metodo berdina.

XEHETASUNEZ: Erakusten hasi baino lehen, ikastaroan gerta ditzeken gertakizun eta premia guztiak xehetu eta bereiztuaz. Zein irakasle zein talderentzat, zenbat eta nolako taldeak, noiz, zer ordutan eta nun erakutsi, egitaraua, eta gainerako neurri edo legeak. Jakina: ez da neurri edo erregimen-tua gizonaren zapalgarri bat izango, euskera egiaz eta benetan ikasi nahi dutenak gezurrezko ikasle zagar, alfer eta joalastinengandik defenditzeko baizik.

Izan ere, orain arte, gure ikastaroetan, euskera ikastearen aitzakian, euskera, euskaldun eta euskalerriaren bizkar farra egin duten honelako ikasle gehiegi izan dugu.

Lehenengo puntua:

Euskal alfabetatzeari begirada bat. Ikastaroa: 1969-70.

MADRID: Taldeak: 5.

Ikasleak: 35 inguru. Hau da: hogeita hamar Euskera ikasi nahi dutela esan dutenak. Baina Euskal erriatik Madridko Unibersidadera bizimoduak karrera baten bila etorriak ehunkada asko dira. Gehien gehienak analfabetoak Euskeraz.

Gorabeherak: Madrident zail da bilketa egitea, hiri zabala baita.

Banaka batzuek Euskera ikasi egin dute talde hauetan.

Unibersidadeetako esaminak dirala-ta jendeak utzi egiten diu irakatsaioetara etortzeari. Batzutan zabarkariz edo aitzaki ahulez. Batzutan irakasle bakarrik arkitu da.

Bi talde sakabanatu egin dira ta Bazkoaz gero ez dira gehiago bildu. Esaminak dirala-ta, bein Maiatza erdiak gero talde gehienek utzi egiten diote Euskera ikasteari.

Batzuk benetan eta ganoraz ekiten diote Euskera ikasteari. Beste batzuen irakats-aldietara joatea haxe izan da: jolasa, folkloerkeria, pitxia, Euskalerriagarako barren kezkarren lasatzea.

Erakundearentzat hoguei duroko bat jarria dute, zerbaitean laguntzagarria bezala, ikasle bakoitzak ordaintzeko. Banakak ordaindu dute.

VALLADOLID:

Euskal erakuts-aldiaren lehenengo urtearoa izan da.

Taldeak: 8.

Ikasleak: 100'dik gora ziran irakats-eko izena emanak. Hala ere askoz gehiago dira Euskalerriko unibersitario analfabetoak.

Jardunaldiak: Alfabetatzearen gainera, bereziki, 8 irakasleren artean ere izan dituzte. Larunbatero, bi ordu.

Hauen zuzendari: Joan Jose Olaberria.

Ikasgaiak: Illasante ta Mendizabalen testoei.

Ondorenak: Eguberriren P. Altunak emango uan kursillo batera dei egin itzaizen. Barzelonako taldeen irakatsleentatik bi etorri ziran.



Valladolidtik hiru. Altunarekin, batez ere, euskerak duan dinamika ikusi zuten.

Bigarren hiru-hilabete-aldian Altunaren testoei gaitz ziran astero-ko bilerak. Irakasleak urri zetozen. Berdin alfabetatze taldeko ikasleak ere. Bazkoa ingururako bilerak guztiak desegin ziran.

Gora-beherak:

— Nun bilduraren eragozpena. Le-
kurik ezin arki.

Irakasleen bilerak «Accion Catolica» biltokian egin dira hileko 500 pezeta ordainduaz.

— Guztien axolako ordua ezin ta-
xutua. Garai desberdinetan bait du-
tu bakoitzak Unibersidadeko ikas-
ketak.

— Zenbaitentzat euskera ez da
herriaren hizkuntza bizi bat esno-
bismoa baizik.

— Ugaritasuna kaltegarri da.
Ikasle guzti izan-da ere egiazkoak
hobe dira.

SALAMANCA:

Taldeak: 6.

Ikasleak: hasieran 40 inguru. Bai-
nan ehunkada batzuek gehiago ba-
da «goi-mailako» euskal-analfabe-
toak.

Jardunaldiak: Alfabetatze sailetan
bakarrik izan dira.

Azarotik Maiatza erdira arte egu-
nero ordubetako irakats-saioa eman
da, larunbata eta igandeaz beste.

Gorabeherak: Banaka batzuek
saiatu dira euskera ikasten. Baina,
etorri gabeiz huts egite asko izan
da. Eta etorri diranetatik gutxi-
landu dute eguneroko ikasgaia.

Huts egiterik haundiena, ordea,
hasierakoa izan zan: hala-hola arin
batean taldeak eratu ziralako. Otsai-
lean, ur asko joan-da gero, presa
egin nahi izan zan zabarkeria hura
geldiarazteko.

Ordurarte irakats-saioak esker
hutsan (debalde) eman ohi ziran.
Ikasleari, euskera ikasi nahi zuela,
esanean bakarrik sinetsiaz. Baina,
urte aldirio, esan huts horiek ustel
gertatzen ari ziralako, fiagarri, 500
pezetako fiantza bat eskatu zitzaion
bakoitzari. Urtearen buruan, iras-
le guztien iritzi ikasle bakoitz-
tzak leial jokatzeko bazuan-taldekoen
atzerabide ta galeragarri izan gabe,
berriro beretzat izango zuan eman-
dako diru osoa. Bestela, egindako
kaltearen ordain, alfabetatze era-
kundearentzat izango zan ikaslea

irakats-saioetatik bialdu ahal iza-
teraino.

Erabaki honek sekulako istilua
sortu zuan; orduan ikusi zan ere
egiaz nor zebilen. Batzuek, hase-
re bizian «baja» eman zuten, hori
ez zala demokrazia esanaz.

Irakasleek hau ikusirik, guztia
zegoan zegoanean uztea pentsatu
zuten aurtengo bederen.

Bigarren puntua:

Joanak joan, biltzarrean, datorren
ikastaroari begira, lehenengo era-
bakiak hartu dira:

1. Unibersidade bakoitzetik iras-
leekin ordezkari bat izendatzea.
Valladolidtik Joan Jose Olaberria
gelditu da.

Madridtik Mikel Urkola.
Salamancatik Luis M. Satrustegi.
Ordezkari hauek jasorik behar di-
tuzte izan norbere alderdiko iras-
leekin izen-zuzenbideak, datorren
urtean nortzuk izango diran aurretik
jakinik.

2. Agorreko azken egunetan as-
te beteko kursioa antolatu nahi
litzake Unibersidadetako taldeen
euskera-erakusle guztientzat.

3. Irakas-aldi honek gaurko
bost alderdi ditu:

— Hizkuntzarena: Fonetika, Mo-
reologia eta Sintaxis.

— Erakuskerarena: testoeak e. ab.

— Erakundearena: alfabetatze-
talde guztien har-emanak...

— Zabalkundearena: euskera no-
la zabaldu...

4. Agorreko irakats-aldia anto-
latzeko, Uztailaren 5'ean, Uniber-
sidade bakoitzetik irakasleen orde-
zkari bana bilduko gera. Iruña, Do-
nostia, Bilbao, Gazteiz, Barzelona,
Zaragoza eta gainerako Unibersida-
deetako euskal-alfabetatze taldeen
arduradun zeratenoi dei sutsu bat
egiten zaizute egun honetan guz-
tiok bil gaitzen. Ekar beza bakoit-
tzak bere alderdiko egoeraren be-
rri, irakasleekin atzerketa bat egin
eta guztien udarako zuzenbidea ja-
so ondoren.

Uztailako elkartze hori nun izan-
go dan galdetuz, arren, idaz ahalik
lasterren, zuen bakoitzaren argibi-
dea garbi emanaz, honoko zuzen-
bide honetara.

J. M.^a TORREALDAY

Convento Franciscanos.

Tolosa (Guipúzcoa).

BATZORDEA

ULTZAMA'ko «SIMPOSIUM» delakoaren berriak

Gure Euskaltzaindiak (Euskal Akademia), denok dakigun bezala, aurtun Ultzamako Bailean, EUSKE-RA, KATALAN ETA GALLEGOK'aren alde «zerbait» on eta onargarri egiteko Katalunia ta Galiziako Akademiekin batera «SYMPOSIUM» delako bat antolatu du. Hona hemen Euskaltzaindiak «SYMPOSIUM» honi buruz eman dizkigun berriak:

«Naparro zaharrean, Ultzama aldean ospatuzko dugu Billera Nagusia SYMPOSIUM izenekoa. Idaz-
lariak (Sekretarioa), Bertelonako «ERRI IKUNTZEN BERRI EMATE, AGIRIKETA TA BATERATZERAKO» Elkargoan, Frederic Roda jaunare-
kin Santamaria jauna itzeginia dala, esan zuen. Handik jakin dugu Bi-
llera Nagusi hori atzeratu izan dala Urdara edo Udazkenerako.

SYMPOSIUM horetan kontu hauek aztertuko dira:

1'gna.: Gure arteko ikuntzen egoe-
ra. Ikuntza bakoitzaren az-
terketa, ikuntza beraren orde-
zkariak (delegadua) egin-
go du.

2'gna.: Gure Ikuntzak (EUSKERA, KATALANA ta GALLEGOA)

Irakaskintzaren eta Zabal-
kunderaren barnean.

3'gna.: Gure ikuntzak gaur legea-
ren aurrean.

4'gna.: Espainiaren ELEBITZA (BILIN-
GUISMOA)-ren alde egin di-
ran alegia.


5'gna.: Europa barruan Elebitzaren
alde artu izan diran negu-
rriak.

6'gna.: Munduko Elkargo Nagusiak
Guraso-ikuntzen alde atera
dituzten agiri eta alegia
(ONU, GIZONEN ESKUBIDE
AGIRIA, UNESCO, BATIKA-
NO, eta eta).

Garrantzi handikoak dira bene-
tan «SYMPOSIUM» hontan azertu
behar diran gai guziaz.

Oraindik badugu denborarik gau-
zak kementi diran bezala egiteko,
sei ilabetera gutxi gorabehera bai-
gaude. SYMPOSIUM honen asiera-
tik. Esperoan gero gure euskera-
ren onerako izango dela.

SYMPOSIUM hau «Principe de
Viana» Elkargoaren laguntzarekin
egin go da».



ZURE BEGIEK

Zure begiek
ene maila
ba dute biek
diridir ezitia.

Zeruko lore
miresgarriak
izarren pare
xoragarriak.

Gazte gaztia
zira oraino
egun guzia
nago zuri so.

Zure begiek
erotzen naute
eta guziek
nahi lutzete.

Gaua delarik
mundurat jausten
Jauna zerutik
da urrikaltzen

Zure begien
goxofio hori
egon dadien
eder ta garbi.

Ene nahia
ziñez aundia
zu izaitia
nere andria.

(D. Landart eta M. Laboak
eratu).



Eraria epela dagola?

FAGOR'ek
oztuko du berela

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira
ganadu on, indartsuak,
Eta nora jo jakin bear du
baserritar burutsuak,
Berebiziko aragi pillak;
gañera esne putzuak,
Oiek guziak berekin ditu
Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRETERI

Bodegón

Alejandro

Alejandro'ren Bodega dago
Donosti'ko txoko baten,
bein ezagutzen dutenak zintzo
dakite aruntz joaten.
Nai dan aukera ba-dezu beti
jaten bezela edaten,
oberik ezin arki ditteke
merke ta ondo ematen.

Fermín Calbetón, 4
DONOSTIA